

# XEDAPEN OROKORRAK

## LEHENDAKARITZA

### 483

*5/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena.*

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak arlo hauek esleitzen dizkio Jaurlaritzaren Lehendakaritzari: lehendakariari laguntza ematea Jaurlaritzaren jarduera planifikatzen eta koordinatzen, eta, halaber, gobernu-programa eta plan estrategikoak bultzatzea eta jarraipena egitea; Jaurlaritzaren bozeramailletza; Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpoko ordezkartza- eta proiektzio-politika; Jaurlaritzaren politika Europako gaie-tan, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzan eta euskal gizataldeen eta euskal etxeen arloan; 2030 Agendaren ezarpena bultzatzea, hargatik eragotzi gabe agenda hori Jaurlaritzaren sektore-politiken bidez gauzatzea, prospekzio eta azterketa soziologikoa egitea, zientzia-, tekno-logia- eta berrikuntza-plana bultzatu eta koordinatzea, eta berrikuntza-funtsa kudeatzea.

Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren antolamenduaren eta egitekoen esparru berrian, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua eta hiru idazkaritza daude: Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia, eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.

Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiari dagokio, oro har, Lehendakaritzaren zerbitzu erkideak koordinatu, zuzendu eta kudeatzea, eta, bereziki, lehendakariari laguntza politikoa eta teknikoa ematea Jaurlaritzaren jarduna zuzendu eta koordinatzeko.

Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiari dagokio Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanak planifikatu, babestu eta koordinatzea.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari dagokio gizarte-agertoki berrien azterketa sustatzea, sailen eta erakundeen arteko jarduera-proposamen berriak identifikatu eta koordinatzea, esperientzia pilotuak bultzatzea, erakundeen, gizartearen eta nazioarteko aliantzak dinamizatzea, eta politika publikoen esparru horren zabalkundea eta gizarte-sustapena egitea.

Ondorioz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikulua eta irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 3. artikulua ematen dizkidaten ahalmenen arabera, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 19ko bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

LEHENDAKARITZA

1. artikulua.– Jardun-arloak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020

Dekretuaren 3. artikulua araber, Jaurlaritzaren Lehendakariak egiteko eta jardun-arlo hauek ditu esleituta:

- a) Lehendakariari laguntza ematea Jaurlaritzaren jardura planifikatzen eta koordinatzen; hala-ber, gobernu-programa eta plan estrategikoak bultzatzea eta jarraipena egitea.
- b) Jaurlaritzaren bozeramailetza.
- c) Erakundeen arteko eta sailen arteko koordinazioa, gizarte- eta sektore-erlaketari aurre egiteko, lankidetzaz-gobernantzako eredu batean.
- d) Jaurlaritzaren informazio- eta komunikazio-politika.
- e) Parte-hartze soziala eta herritarrentzako informazio zuzena, multimedia- eta komunikazio-teknologia berrien bidezko edukiak sortuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekiko lankidetzan.
- f) Gizarte- eta erakunde-harremanak.
- g) Euskal Autonomia Erkidearen kanpoko ordezkari- eta proiektzio-politika.
- h) Jaurlaritzaren politika gai hauetan: Europako gaiak, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaz, euskal gizataldeak eta euskal etxeak.
- i) 2030 Agendaren ezarpena bultzatzea, hargatik eragotzi gabe agenda hori Jaurlaritzaren sektore-politiken bidez gauzatzea.
- j) Prospekzio eta azterketa soziologikoa.
- k) Zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-plana bultzatu eta koordinatzea, eta berrikuntza-funtsa kudeatzea.
- l) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

## 2. artikulua.– Egitura.

1.– Aurreko artikuluan adierazitako arloen inguruko egitekoak betetzeko, organo hauek daude Lehendakariaren:

### 1.1.– Lehendakaria:

Idazkaritzaren eta Erakundeekiko Harremanen Zuzendaritza.

### 1.2.– Lehendakariaren Idazkaritza Nagusia:

- a) Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza.
- b) Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.
- c) Koordinazio Zuzendaritza.
- d) Zerbitzu Zuzendaritza.
- e) Komunikazio Zuzendaritza.

### 1.3.– Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia:

- a) Kanpo Harremanen Zuzendaritza.

b) Europako Gaien Zuzendaritza.

c) Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.

d) Ordezkaritzak: Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza, Euskadiren Argentinako Ordezkaritza (Mercosur), Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritza, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza eta Euskadiren Mexikoko Ordezkaritza.

1.4.– Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia:

a) Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza.

1.5.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua.

2.– Jaurlaritzaren Lehendakartzako idazkari nagusiak lehendakariaren mende egongo dira zuzenean eta hierarkikoki, eta, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen ondorioetarako, sailburuordeen maila izango dute.

3.– Euskadik kanpoan dauzkan ordezkariak zuzendarien maila izango du, ekainaren 30eko 7/1981 Legean xedatutako ondorioetarako.

4.– Lehendakartzaren idazkari nagusiek emandako ebazpenek administrazio-bideari amaiera emango diote.

3. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua.

1.– Lehendakariak, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloan dagozkion eskumenak gauzatzeko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatu baten laguntza izango du, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera eta bertan ezartzen diren laguntza-funtzioekin bat etorritik.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuak sailburuordeen maila izango du, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen ondorioetarako.

4. artikulua.– Atxikipenak.

Lehendakartzari atxikita daude, halaber, sortze-arauetan ezarritako baldintzetan, honako organo hauek:

a) Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzko abenduaren 23ko 6/2010 Legeak sortua eta azaroaren 22ko 237/2011 Dekretuak arautua.

b) Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea, abuztuaren 31ko 127/2007 Dekretuak arautua.

c) Kanpo Harremanetarako Erakundearteko Batzordea, martxoaren 18ko 52/2008 Dekretuak arautua.

d) Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordea, ekainaren 28ko 96/2016 Dekretuak sortu eta arautua.

e) Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea, apirilaren 11ko 234/1995 Dekretuak arautua.

f) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuak arautua.

## 5. artikulua.– Idazkaritza nagusiak.

1.– Lehendakaritzaren egitura osatzen duen idazkaritza nagusi bakoitzari dagokio, dekretu honetan zehaztutako arlo espezifikoari kalterik egin gabe, kontratazioaren arloko egiteko orokor hauek betetzea:

a) Kontratazio-organo gisa jardutea esleituta dituzten jardun-arloei dagozkien gaietan, baldin eta indarreko legeen arabera kontratu txikitat hartzen ez badira. Hala ere, kontratu txikietan ere kontratazio-organo gisa jardungo dute, baldin eta zuzenean mendean dituzten zuzendaritzen jardun-arloa gainditzen badute eta idazkaritzen jardun-arloei dagozkien gaiak badira.

b) Idazkaritzen jardun-arloei dagozkien espedienteak izapidetzeko behar diren gastu-baimenak ematea, 8.2.f) artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

c) Idazkaritzen jardun-arloetako berezko gaien esparruan, baliabide propio pertsonifikatuei egindako enkarguak egitea.

2.– Lehendakaritzaren egitura osatzen duen idazkaritza nagusi bakoitzari dagokio, dekretu honen hurrengo kapituluetan zehaztutako arlo espezifikoari kalterik egin gabe, dirulaguntzen arloko egiteko orokor hauek betetzea:

a) Dirulaguntzetarako deialdia egitea eta dirulaguntzok ematea idazkaritza bakoitzaren jardun-arloei dagozkien gaietan, salbu eta indarrean dagoen xedapen orokorren batek kontrakoa ezartzen badu.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan esleitutako dirulaguntza izendunak ematea, idazkaritza bakoitzaren jardun-arloei dagozkien gaietan.

3.– Lehendakaritzaren egitura osatzen duen idazkaritza nagusi bakoitzari dagokio Lehendakaritzaren hizkuntza-normalizazioaren erantzukizuna bere gain hartzea, eskumeneko arloetan, eta euskararen erabilera sustatzea, bai zerbitzuak emateko, bai lan-hizkuntza gisa baliatzeko, herri-tarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera, Jaurlaritzak onartutako euskarari buruzko agenda estrategikoan xedatutakoarekin bat etorritz.

4.– Lehendakaritzaren egitura osatzen duen idazkaritza nagusi bakoitzari dagokio bere gain hartzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak berdintasun-printzipiorako ezartzen dituen aginduak betetzen direla zaintzeko erantzukizuna, bai eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasunerako-planetan ezarritako neurriak betetzen direla zaintzea ere.

5.– Lehendakaritzaren egitura osatzen duten idazkari nagusiek beren jardun-arloetako organoek emandako egintzak ofizioz berrikusteko prozedurak hasi eta ebatziko dituzte.

## 6. artikulua.– Zuzendaritzak.

Lehendakaritzaren egitura osatzen duten zuzendaritzetako bakoitzari dagokio, dekretu honen hurrengo kapituluetan zehaztutako arlo espezifikoari kalterik egin gabe, egiteko orokor hauek betetzea:

a) Kontratazio-organo gisa jardutea esleituta dituzten jardun-arloei dagozkien gaietan, indarreko legeen arabera kontratuak txikitat jotzen badira.

b) Indarrean dauden legeetan txikitat tipifikatutako kontratuen gastu-baimenak ematea zuzendaritzen jardun-arloei dagozkien espedienteetan.

c) Zuzendaritzen eskumen-arloan, Lehendakaritzako Zerbitzu Zuzendaritzarekin koordinatuta, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean ezarritako helburuak zehaztea eta helburuok ezartzeko eta ebaluatzeko behar diren ekimenak garatzea.

d) Zuzendaritzen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planaren helburuak definitzea, bai eta helburu horiek lortzeko ekintzak eta ekimenak sustatu, gauzatu eta ebaluatzea ere; eta, horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko politiken kudeaketa integratua egin, Araubide Juridikoaren Zuzendaritzako Berdintasunerako Unitatearen koordinaziopean eta Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearekiko lankidetzan.

## II. KAPITULUA

### IDAZKARITZAREN ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANEN ZUZENDARITZA

#### 7. artikulua.– Egitekoak.

Egiteko hauek ditu Idazkaritzaren eta Erakundeekiko Harremanen Zuzendaritzak:

a) Lehendakariaren gizarte- eta erakunde-harremanak garatu eta sustatzeko irizpide orokorrak ezartzea.

b) Lehendakariak gizarte-eragile, herritar eta erakundeekin dituen harremanak gauzatzea eta harremanon jarraipena egitea.

c) Lehendakariak parte hartu behar duen ekitaldi ofizialak egoki antolatu eta burutzen direla bermatzea.

d) Idazkaritzaren arlorako eta Lehendakaritzaren harreman publikoetarako behar diren ekintzak burutzea.

e) Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiarekin koordinaturik, lehendakariari laguntza logistikoa ematea kanpora egin behar dituen bidaietarako.

f) Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiarekin koordinaturik, kanpoko pertsona ospetsuek Euskadira egiten dituzten bidaietarako laguntza logistikoa ematea.

g) Lehendakaritzari eta Jaurlaritzako kargu publikodunei protokoloaren araubidea aplikatzea.

## III. KAPITULUA

### LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

#### 8. artikulua.– Egitekoak.

1.– Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia lehendakariaren mende egongo da zuzen-zuzenean, eta egiteko hauek izango ditu:

a) 1. artikuluan ezarritakoaren arabera Lehendakaritzari dagozkion jardun-arloak koordinatu eta bultzatzea, eta Lehendakaritza osorako diren zerbitzuen kudeaketa zuzentzea.

b) Komunikazio-organo legez jardutea Jaurlaritzaren sailekin eta Jaurlaritzaren Lehendakaritzari loturiko organismoekin, hargatik eragotzi gabe ez Jaurlaritzako kideek Lehendakaritzarekin duten zuzeneko harremana –Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren

arabera– eta ez dekretu honek Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiari eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari esleitzen dizkien harremanak.

c) Lehendakariari bere erantzukizunak gauzatzeko behar dituen argibide politiko eta teknikoak eskaintzea, sailburuei dagozkien egitekoak murriztu gabe.

d) Lehendakariari Jaurlaritzaren jarduna zuzendu eta koordinatzeko behar duen laguntza ematea. Horrez gain, aholkularitza ere eskainiko dio, hala eskatzen bada.

e) Sektoreetako jarduera- eta ekimen-planei buruzko informazio-prozedura egokiak ezartzea eta horiek mantentzea, lehendakariari gobernu-lana koordinatzen laguntzeko.

f) Jaurlaritzako sailei laguntza eskatzea, halakorik behar bada, lehendakariak erakundeetan parte hartu behar duenean.

g) Sailen jardueren koordinazio orokorrerako eta sektorialerako prozedurak eta tresnak proposatzea, eta jarduera horiek nola gauzatzen diren gainbegiratzea.

h) Gobernu-programari lotutako adierazle-sistemaren kudeaketa zuzendu eta koordinatzea, Ekonomia eta Ogasun Sailarekiko lankidetzan.

i) Jaurlaritzaren informazio- eta komunikazio-politika ezarri, diseinatu eta zuzentzea, gizarte-komunikabideez baliatuz.

2.– Lehendakaritzari dagozkion eskumenen esparruan, Lehendakaritzaren idazkari nagusiak honako egiteko hauek izango ditu:

a) Xedapen orokorren eta akordioen proiektuak egitea eta lehendakariari proposatzea, eta Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitekoen eta jardun-arloen esparruan behar diren zirkularrak, jarraibideak eta egintzak ematea.

b) Lehendakariari laguntzea Jaurlaritzaren Lehendakaritzari esleitutako jardun-arloetan, Gobernu Kontseiluak edo horren barnean sortutako batzorde eskuordetuek onartu behar dituzten gaiak aurkeztu, defendatu eta izapidetzen.

c) Lehendakaritzaren dirulaguntzetarako deialdia egitea eta dirulaguntzok ematea, baldin eta Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren berezko gaiak badira edo gainerako idazkaritza nagusien jardun-arloak gainditzen badituzte.

d) Idazkaritza nagusietako baten berezko eremua gainditzen duten eta indarrean dauden legeen arabera kontratu txikitat hartzen ez diren gaietan, kontratazio-organoa izatea, eta, oro har, aurrekontu-araubidearen eta kontratazioaren arloan sailburuei esleitzen zaizkien ahalmenak baliatzea.

e) Era berean, idazkaritza nagusietako baten eremua gainditzen duten gaietan, baliabide propio pertsonifikatuei egindako enkarguak izenpetzeko eskumena izango du.

f) Dekretu honetan beste organo batzuei esleitu ez zaizkien Lehendakaritzaren eskumeneko espedienteak izapidetzeko behar diren gastu-baimenak ematea, hargatik eragotzi gabe zenbatekoa dela-eta Gobernu Kontseiluari dagozkionak.

g) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikulua sail bakoitzari esleitzen dizkion eskumenak erabiltzea, Lehendakaritzari atxikitako behin-behineko langileak izendatzea barne.

h) Ondare-erantzukizuneko espedienteak ebaztea, bai eta idazkaritza nagusi baten jardun-arloa gainditzen dutenak ere.

#### 9. artikulua.– Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza.

Azterlan Kabinetearen Zuzendaritzari egiteko hauek dagozkie:

- a) Lehendakariaren lan-programaren jarraipena egitea.
- b) Lehendakariari laguntza zuzena ematea karguaren arabera esleituta dituen egitekoetan.
- c) Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen bidez, behar diren azterlanak, txostenak eta jarduerak egitea, Jaurlaritzaren Lehendakaritzak gizarte-errealitatearen egoeraren eta bilakaeraren berri izan dezan.

#### 10. artikulua.– Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.

Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari egiteko hauek dagozkie:

- a) Lehendakaritzaren eskumen-eremuan, Gobernu Kontseiluak erabaki beharreko gaiak presatu eta koordinatzea, bai eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharrekoak ere.
- b) Legebiltzarreko agerraldiak lantzen laguntzea Jaurlaritzaren Lehendakaritzako organoei, bai eta Lehendakaritzak Arartekoarekin, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin nahiz beste erakunde publiko batzuekin dituen harremanak koordinatu eta bideratzea ere, organo eskudunen bidez.
- c) Lehendakaritzaren lege-aholkularitza eta araugintza, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- d) Saileko organoei aholku ematea sektore publikoko kontratuei buruzko legeei buruz, lege horietan bertan araututako edozein prozeduratan zuzen aplikatzeari buruz eta kontratuak gauzatzeari buruz, beste organo batzuei esleitutako eskumenei kalterik egin gabe.
- e) Lehendakaritzarentzat interesgarriak diren legeen, jurisprudentziaren eta doktrinaren jarraipena egitea.
- f) Berdintasunerako Unitatearen jarduerak zuzentzea eta Lehendakaritzako organoekiko lankidetzan aritu, koordinatu eta bultzatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasun-planean aurreikusitako neurriak betearaztea sustatzeko.
- g) Euskadiren kanpoko ordezkarietako lankidetzan aritzea ordezkari horiek ondo funtzionatzeko behar diren ekintzetan, betiere Zuzendaritzako gaitetan.
- h) Euskadiren kanpoko ordezkarietako lankidetzan aritzea, funtzionamendu normalerako behar diren ekintzak gauzatzeko, Zuzendaritzaren berezko gaitetan.

#### 11. artikulua.– Koordinazio Zuzendaritza.

Koordinazio Zuzendaritzari egiteko hauek dagozkie:

- a) Gobernu-jardunaren prestakuntza koordinatzea eta jarraipena egitea, bai eta informazio-prozeduren proposamena egitea eta prozeduren jarraipena egitea ere.
- b) Sailekiko lankidetzarako mekanismoak eta koordinazio-estrategiak zehaztea, gobernu-jardun bateratu baterantz jotzeko.

c) Sailei aholkularitza ematea euren jardunak planifikatu, programatu eta ebaluatzeko, bereziki sailarteko eta erakundearteko eragina badute. Jardun horietan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin eta Ekonomia eta Ogasun Sailarekin koordinatuta jardungo du.

d) Sailarteko edo erakundearteko organoetan parte hartzea, organoen jarduera gobernu-jardunerantz bideratzeko, eta koordinazioa sustatzea funtzionamendua hobetu eta ahalik eta efikazia eta efizientzia handiena izan dezaten.

## 12. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

### 1.– Zerbitzu Zuzendaritzari, zeharkako kudeaketako organo gisa, egiteko hauek dagozkie:

a) Aurrekontuaren aurreproiektua egitea, aurrekontuaren jarraipena egitea eta Lehendakaritzaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa gauzatzea.

b) Lehendakaritzako bulegoen barne-araubideari eustea, bulegoak administratzea eta bertako ondarea eta ekipamendua zaintzeaz arduratzea.

c) Sortzen diren ondare-erantzukizuneko espedienteak hastea, izapidetzea, eta Lehendakaritzaren idazkari nagusiari helaraztea, berak ebatzi ditzan.

d) Euskadiren kanpoko ordezkariekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, egoitzek behar bezala funtziona dezaten, Zuzendaritzaren berezko gaietan.

e) Euskadiren kanpoko ordezkarietarako behar bezala funtzionatzeko behar diren jarduerak gauzatzen lagundu eta ziurtatzea, batez ere ondare, obra eta altzari, baliabide informatiko eta telekomunikazio, ibilgailu eta langileei dagokienez.

f) Laneko Segurtasun eta Osasun Unitatearen jarduerak zuzendu eta antolatzea.

g) Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa aurreratuko, modernizazioko, administrazio elektronikoko, gobernantzako eta berrikuntzako proiektu orokorretan parte hartzea, eta Lehendakaritzan sustatzea.

h) Lehendakaritzako herritarrentzako informazio- eta arreta-zerbitzuen funtzionamendu egokia ziurtatzea (arretarako 2. eta 3. mailak), Zuzenean–Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuarekiko harremanak behar bezala antolatzea eta, horretarako, eskumen-eremuko gaietan solaskide operatiboak daudela ziurtatzea.

i) Lehendakaritzari dagozkion informazio publikoa eskuratzeko eskabideak izapidetu eta ebaztea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

j) Gardentasun-politikarekin bat etorritik, hauek koordinazioa eta jarraipena egitea: informazioaren argitalpen aktiboa, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eskabideei emandako erantzunak eta Lehendakaritzaren datu publikoen irekiera.

k) Lehendakaritzako Erregistro Orokorra eta Artxiboa kudeatzea.

### 2.– Langileen arloan, egiteko hauek dagozkie Zerbitzu Zuzendaritzari:

a) Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikitako langileak administratu eta kudeatzea, eta diziplina-espedienteak izapidetzeko eskumena duen administrazio-organoa izatea.

b) Langileen beharrianak ebaluatzea eta Lehendakaritzako lanpostuen zerrendaren proposamena egitea.



c) Langileen gizarte-ekintzako, prestakuntzako eta hobekuntzako planak eta programak pres-tatzea, hargatik eragotzi gabe Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak arlo horretan dituen eskumenak.

d) Lehendakaritzako zerbitzuen eta lan-sistema eta -metodoen barne-antolaketari, arrazionaliza-zioari, aplikazio informatikoei, administrazio digitalari eta informatizazioari buruzko proposamenak egitea, Lehendakaritzaren gainerako organoekin eta Autonomia Erkidegoko Administrazioi organo eskudunekin koordinatuta.

e) Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren zerbitzuko langileen euskalduntze-prozesua eta hiz-kuntza-normalizazioa koordinatzea, eta euskararen erabilera sustatzea, Euskara Unitatearen bidez, hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duten organo zentralekiko lankidetzan.

### 3.– Kontratazioaren esparruan, egiteko hauek dagozkio Zerbitzu Zuzendaritzari:

a) Sektore publikoko kontratuen legeen mendeko prozedurak izapidetzea, hargatik eragotzi gabe Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumenak eta Lehendakaritzako beste organo batzuei arauz esleitutako eskumenak (Euskadiren kanpoko ordezkariak).

b) Idazkaritza nagusietako baten eremua gainditzen duten gaietan kontratazio-organogisa jar-dutea, baldin eta indarreko legeen arabera kontratu txikitat jotzen badira.

#### 13. artikulua.– Komunikazio Zuzendaritza.

Komunikazio Zuzendaritzari egiteko hauek dagozkio:

a) Jaurlaritzaren jardunaren berri behar bezala ematen dela ziurtatzea, bai eta lehendakariaren eta Jaurlaritzaren bozeramailearen jardunaren berri ere.

b) Beharrezko irizpide eta baliabideak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail eta organismo autonomoen prentsa-zerbitzuak eta erakunde-izaerako jardueri loturiko zabalkunde- eta informazio-ekintzak koordinatuta egon daitezen bermatzeko.

c) Jaurlaritzak komunikabideekin dituen harremanak zuzentzea.

d) Gizartea sentibilizatzeko publizitate-kanpainak eta neurriak koordinatzea, bai eta Eusko Jaurlaritzaren eta sailen jardueren zabalkundea egitea ere, Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordearen bidez.

e) Euskadiren irudi instituzionala kanpoan zabaltzeko informazio- eta publizitate-irizpideak eta -politikak ezartzea.

f) Gobernuaren komunikatuak, erreferentziak eta prentsa-oharrak egitea.

g) Euskadiko nahiz nazioarteko gaurkotasunak komunikabideetan duen islaz azterlanak eta txostenak burutzea, eta politikaren, ekonomiaren eta gizartearen egoera aztertzea, ikuspuntu informatiboa erabiliz.

h) Herritarrei gobernu-ekintzaren berri informazioa zuzenean ematea, edukiak sortuz.

## IV. KAPITULUA

## KANPO HARREMANEN IDAZKARITZA NAGUSIA

## 14. artikulua.– Egitekoak.

1.– Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia lehendakariaren mende egongo da zuzenean eta hierarkikoki, eta laguntza emango dio lehendakariari Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpo-harremanetarako estrategia politiko eta instituzionala zehaztu eta zuzentzeko.

2.– Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiak honako egiteko hauek ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan:

- a) Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremana programatu, sustatu eta koordinatzea.
- b) Euskadi nazioartekotzeko esparru-estrategia zehaztu eta abian jartzeko ekintzak bultzatu eta koordinatzea, bai eta kanpo-harremanen plan estrategikoa ere.
- c) Jaurlaritzari kanpo-harremanen arloan lagundu eta aholku ematea, eta lehendakariaren jarraitbideak betearaztea esparru horretan. Ildo horretan, Lehendakariari laguntzea, Eskualdeetako Lantaldean eta beste eskualde-organo edo -erakunde batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari instituzionala den heinean dituen egitekoetan. Horrez gain, lehendakariaren ordezkoa izango da Eskualdeetako Lantaldean eta beste eskualde-organo edo -erakunde batzuetan.
- d) Kanpoko pertsona ospetsuen presentzia planifikatu, sustatu eta koordinatzea Euskadin.
- e) Europako erakundeei buruzko jardun-politika definitzea, batez ere Europar Batasunari eta Europako Kontseiluari buruzkoa.
- f) Eusko Jaurlaritzak Europako eskualde-mugimenduan duen ekimena zuzentzea, batez ere Eskualdeetako Lantaldean eta Euskadik parte hartzen duen eskualdearteko erakundeetan.
- g) Mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren harremanak zuzendu, bultzatu eta koordinatzea, eta, bereziki, lurralde-artikulaziorako harremanetan sakontzea Nafarroako Foru Komunitatearekin eta «Euskal Hirigune Elkargoa–Communauté d'agglomération du Pays basque»arekin, oinarri hartuta Euskal Autonomia Erkidegoarekin dituzten harreman-lotura bereziak.
- h) Kanpoan diren euskal gizataldeekiko harreman-politika planifikatu, gauzatu eta kudeatzea.
- i) Eusko Jaurlaritzak beste herri, eskualde edo erakunde azpiestatal batzuekin edo nazioarteko antolakundeekin dituzten aldebiko harremanak eta aldeaniztunak sustatu, garatu eta koordinatzea.
- j) Estatuko Administrazioarekiko koordinazio instituzionalean aritzea, Europako politikaren, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanen eta Estatuaren nazioarteko politikaren jarraipena egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenei eragiten dieten gaietan, ahalik eta kanpo-harreman hoberena bermatzeko.
- k) Nazioarteko tratatuak egin eta negoziatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak izan behar duen parte-hartzea zuzendu eta koordinatzea, Estatuko Administrazioarekin adostutako bideetatik.
- l) Gai horietan Estatuaren borondatea zehazteko eratzen diren konferentzia, batzorde edo organoetan Euskal Autonomia Erkidegoaren presentzia eta parte-hartzea koordinatzea.
- m) Kanpo-harremanetan eragina duten jarduerak gauzatu dituzten erakunde publikoekiko edo pribatuakiko harremanak izatea.

n) Euskal erakundeen arteko kooperazioa eta lankidetzaren sustatzea, Kanpo Harremanetarako Erakundearteko Batzordearen eremuan, kanpo-harremanen eremuko proiektuak bateratzeko.

o) Europako Batzordearen eta Europako Parlamentuaren Estatuko Ordezkaritzarekiko harremanak garatzea.

3.– Jaurlaritzaren kanpo-harreman bateratua izan dadin, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia eta organoak elkarlanean arituko dira Eusko Jaurlaritzako sailekin, organismo autonomoekin, sozietate publikoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ente publikoekin, lehen aipatutako egiteko horietarako. Kanpo-harremanen esparruan arau eta xedapenak eman behar direnean, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiak arau eta xedapen horien proiektuen gaineko txostena emango du.

4.– Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiari eta organoari esleitutako egitekoek lurralde historikoen eta lurralde-erakundearen jardunari eragiten badiote, lankidetzaren eta elkarlan-bitarteko egokiak ezarri gaiztatu dira.

15. artikulua.– Kanpo Harremanen Zuzendaritza.

Kanpo Harremanen Zuzendaritzak bete behar ditu Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiak jardun-eremuan esleituta dituen egitekoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Kanpo Harremanen idazkari nagusiari laguntzea kanpo-harremanen politika kudeatu eta gauzatu.

b) Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiak definitzen duen kanpo-harremanen plan estrategikoko jardun- eta ekintza-lerroak prestatu, sustatu, koordinatu, gauzatu eta ebaluatzea.

c) Jaurlaritzaren kanpo-harremanen estrategia politikoa eta instituzionala ziurtatzeko, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiak kanpoan gauzatu behar diren jarduerak koordinatzeko tresnak proposatu eta kudeatzea.

d) Eusko Jaurlaritzako sailek, organismo autonomoek eta sozietate publikoek Europar Bata-sunetik kanpo egiten dituzten ekintzak bultzatzea, jarraipena egitea eta koordinatzea, Euskadiko ekonomia-, enpresa- eta kultura-sustapenaren koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

e) Euskadiren kanpoko ordezkaritzek egoki funtzionatzeko behar den jardura oro proposatu eta sustatzea.

f) Ordezkaritzari babesa eta laguntza teknikoa ematea txostenak eta memoriak prestatzeko, solaskide edo eragileak identifikatu eta aurkitzeko, eta, oro har, eguneroko funtzionamendurako.

g) Eusko Jaurlaritzaren interesak koordinatzea Madrilen, Euskadiren Madrilgo Bulegoaren bidez.

h) Eusko Jaurlaritzak nazioarteko erakundeekin eta erakunde aldeaniztunekin dituen harremanak sustatu eta erraztea.

i) Izaera horizontaleko organismo eta sareetan parte hartzea, bai horiekiko harremanak sustatzeko, bai Eusko Jaurlaritzako sail, organismo autonomo eta sozietate publikoek organismo eta sare horiekin dituzten harremanen jarraipena egiteko.

j) Euskadi kanpoan ezagutzera emateko jarduerak sustatzea, industria, jakintza, berezitasun instituzionalak, hizkuntza eta kultura oinarri hartuta.

- k) Euskadin nazioarteko organismoek euren egoitzak irekitzeko laguntza eta euskarria ematea.
- l) Kidego kontsularrarekiko harremanetan, komunikazio-kanala izatea Euskadin.

#### 16. artikulua.– Europako Gaien Zuzendaritza.

1.– Europako Gaien Zuzendaritzak bete behar ditu Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiak jarduera-esparruan esleituta dituen egitekoak, eta, bereziki, hauek:

a) Kanpo Harremanen idazkari nagusiari laguntzea Jaurlaritzak Europar duen jarduna eta lurralde-lankidetzaren sustatu eta koordinatzen.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Europar Batasuneko eta Europako Kontseiluko erakunde eta organoen arteko harreman-organo gisa jardutea, Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin koordinatuta.

c) Koordinazio-neurrien egikaritzea zuzendu eta garatzea, Jaurlaritzak esku har dezan Europar Batasuneko arauak eta politikak landu eta aplikatzeko jardunean, bai eta Jaurlaritzaren Sare Operatiboa garatzea ere neurri horiek betetzeko.

d) Eusko Jaurlaritzako sailek, organismo autonomoek eta sozietate publikoek Europar Batasunetik kanpo egiten dituzten ekintzak bultzatzea, jarraipena egitea eta koordinatzea, Euskadiko ekonomia-, enpresa- eta kultura-sustapenaren koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

e) Europako Erkidegoko zuzenbidearen aplikazioa gainbegiratu eta koordinatzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren komunikazio ofizialak Europako erakundeetara –batez ere Europako Batzordera– kontrolatu eta bideratzea, batez ere komunikazio horiek ordenamendu komunitarioak ezarritako betebeharreri buruzkoak badira (xedapenen transposizioei, estatu-laguntzen proposamenei, arau-hausteei eta abarrei buruzkoak). Horretarako, legeak ezarritako bideak erabiliko dira.

g) Europako Batzordearen eta Europako Parlamentuaren Madrilgo Ordezkaritzarekiko harremanak izatea.

h) Jaurlaritzako sailek, organismo autonomoek eta sozietate publikoek Europar Batasunaren programa eta ekimenetan duten parte-hartzea sustatu, koordinatu eta ebaluatzea, baldin eta programa eta ekimen horiek programazio-dokumenturik edo programa operatiborik behar ez badute.

i) Jaurlaritzako sailek Europar Batasunaren ekimenen berri izateko eta ekimenoi jarraipena egiteko tresnak zuzendu eta koordinatzea.

j) Jaurlaritzako sailei arau, politika eta ekimen komunitarioei buruzko aholkuak ematea, arau, politika eta ekimenok sailon interesekoak badira.

k) Europar Batasuna eraikitzearekin zerikusia duten gaien buruzko hedapena eta zabalkundea egiteko jarduerak garatzea, gai horiei buruzko prestakuntza-egintzak eta -azterlanak gauzatzea, eta Europako Informazioaren Euskal Sarea bultzatzea.

2.– Lurralde-lankidetzari buruzko jarduerari dagokienez, egiteko hauek ditu Europako Gaien Zuzendaritzak:

a) Lankidetzaren bultzatu eta koordinatzea Lurralde Lankidetzako Europako Taldean (LLET) –Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak eratua–, taldearen gobernantza-organoetan parte hartuta.

b) Lankidetzaren bultzatzea eta koordinatzea Euroeskualdearen Konferentzian edo Pirinioez Gaindikoko Konferentzia Atlantikoan, gobernantza-organotatik parte hartuta.

c) Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia ordezkatzeko Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) batzarretan.

d) Interreg Europe ekimen erkidea kudeatzen Jaurlaritzak duen ordezkari teknikoaren koordinatzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-lankidetzako programak egitea eta jarraipena egitea, Europar Batasunaren kohesio-politikaren esparruan; batez ere, Espainia-Frantzia-Andorrako lurralde-lankidetzako programan.

f) Nafarroako Foru Komunitatearekiko eta «Euskal Hirigune Elkargoa–Communauté d'agglomération du Pays basque»arekiko harremanak sustatzea, beste erakunde eta organismo publiko eta pribatu batzuekiko lankidetzan, oinarri hartuta Euskal Autonomia Erkidegoarekin dituzten harreman-lotura bereziak.

g) Europako lurralde-erakundeekiko aldeko lurralde-lankidetzaren edo aldeaniztuna bultzatu eta koordinatzea.

h) Mugaren alde bietako eragile publikoen eta pribatuen artean mugaz gaindikoko harremanak ezar daitezkeen bultzatzea.

i) Jaurlaritzako sailen mugaz gaindikoko jardueren aholkularitzan laguntzea. 17. artikulua.– Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.

17. artikulua.– Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzari dagokio Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiak jarduera-esparruan dituen egitekoak gauzatzea, eta, bereziki, hauek:

a) Kanpo Harremanen idazkari nagusiari laguntzea kanpoan den euskal komunitatearen harreman-politika kudeatzen eta gauzatzen; komunitate hori euskal etxeei bildutako pertsonen eta bildu gabeko euskal jatorriko pertsonen osatzen dute.

b) Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko loturak eta harremanak sustatu, koordinatu, ezarri eta areagotzea, batez ere lotura eta harreman sozialak, kulturalak eta ekonomikoak.

c) Kanpoan den euskal komunitatea egituratu eta interkonektatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legeak esleitzen dizkion egitekoak betetzeko ardura duen organoa izatea, eta lege horretan jasotako aurreikuspenak, eskubideak eta zerbitzuak ezartzea.

e) Euskal gizataldeak eta euskal etxeak indartzen laguntzea, barne-kohesioaren eta elkarte-jardueren eraginkortasunaren alde eginez.

f) Ordenamendu juridikoaren eta aurrekontu-baliabideen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi den euskal komunitateak laguntza, asistentzia eta babesa izateko aukera ematea.

g) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi den euskal komunitatearen eta EAEko botere publikoen arteko komunikazio-kanalak ezartzen laguntzea.

h) Lau urterik behin, Kanpoan diren Euskal Gizataldeen Mundu Batzarra antolatzea.

- i) Euskal gizataldeei laguntzeko lau urteko plana koordinatzea eta, hala badagokio, gauzatzea.
- j) Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeari laguntza eta asistentzia ematea.
- k) Hezkuntza Sailarekin, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin eta Etxepare Institutuarekin batera, kanpoan den euskal komunitatean euskal kultura eta hizkuntza zabaldu eta iraunarazteko proiektuak garatzea, bai eta Euskadik eta kanpoan diren euskal gizataldeek duten errealitate komun horretako gai historikoei eta egungo gaiei buruzko ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, erakusketak eta kongresuak ere.
- l) Euskal Etxeen eta Federazioen Erregistro Ofiziala kudeatzea.
- m) Euskadiko eta beste herrialde batzuetako euskal komunitateak elkarrengana gehiago hurbil daitezen behar diren azterlanak eta argitalpenak egin eta zabaltzea.
- n) Euskal emigrazioaren memoria historikoa biltzen laguntzen duten jarduerak sustatzea.

#### 18. artikulua.– Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza.

1.– Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza (egoitza Bruselan) Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiaren mende egongo da zuzenean eta hierarkikoki, eta Europako Gaien Zuzendaritzarekin koordinatuta arituko da. Euskadiren ordezkaritza-organoa da Europar Batasuneko erakundeetan, eta EAEk zenbait arlotan dituen interesak defendatu eta bultzatuko ditu erakunde horietan. Horretarako, egiteko hauek ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren interesak ordezkatzea Europar Batasuneko erakunde eta organoetan eta egoitza Bruselan duten antolakunde aldeaniztun eta organoetan.
- b) Euskadiren interes sozioekonomiko, sektorial eta profesionalak kudeatzea, Europar Batasuneko ekimenek interesoi eragiten dieten heinean.
- c) Europako Gaien Zuzendaritzari egitekoak betetzen laguntzea, eta, bereziki, Jaurlaritzako sailei aholkuak ematea Europako Erkidegoko araudi, politika eta jardueraz.
- d) Europar Batasuneko lege-ekimenen inguruko erabakiak hartzeko prozesuaren jarraipena egitea eta informazioa eskuratzea, lege-ekimenok Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenei edo interesei eragiten badiete, betiere.
- e) Azpiegitura izatea eragile sozioekonomikoen eta agintari erkideen arteko topaketak antolatzeko.
- f) Europako Erkidegoaren mailan parte hartzeko borondatea adierazten duten entitate publiko nahiz pribatu erkideei aholku teknikoak eskaintzea, laguntza-zentro logistiko gisa.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiako Ordezkaritza Iraunkorraren arteko harreman-organoa izatea Europar Batasunean.
- h) Europako erakundeekin eta egoitza Bruselan duten bestelako erakundeekin zuzenean aritzea, Jaurlaritzako sailek Europako Erkidegoko arauak eta politikak landu eta ezartzen parte har dezaten; bai eta, premiazkoa denean, sailek egindako parte-hartzeen berri jakitea ere.
- i) Beste autonomia-erkidego, länder edo eskualde batzuek Bruselan dauzkaten bulegoekiko lankidetzan aritzea.

j) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko erakundeen eta Bruselan kokatutako beste erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaz erraztea, Euskadiren hainbat sektoreen interesak defendatu eta sustatzeko.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak Europako erakundeen organoetan eta lantaldeetan eta, bereziki, Europar Batasunaren parte hartzeko behar dituzten jarduketak egitea.

2.– Euskadiren Europar Batasuneko ordezkariak kontratazio-organo gisa jardungo du bere lurralde-eremuan egiten diren kontratuak, baldin eta sektore publikoko kontratuei buruzko legeetan araututako kontratu txikiak badira, eta higiezinak errentatzeko kontratuak badira, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 41. artikuluko 2. apartatuaren a) eta b) letretan ezarritako eran. Gainera, ordezkariak baimendu beharko du kontratazio horiek eragindako gastua.

19. artikulua.– Euskadiren kanpoko beste ordezkariak batzuk.

1.– Euskadik Argentina-Mercosurren, Txilen, Perun eta Kolonbian, Estatu Batuetan eta Mexikon dituen ordezkariak dira Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkariak-organok, euskal gizataldeekiko harremanen arloan eta sektore anitzeko interesen defentsaren eta sustapenaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenen esparruan, bakoitzaren jardun-arlo geografikoan.

2.– Euskadiren kanpoko ordezkariak hauek Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiaren mende daude zuzenean eta hierarkikoki, eta Kanpo Harremanen Zuzendaritzarekin koordinatuta jardungo dute; hauek dira egitekoak:

a) Ordezkaritzak kokatuta dauden herrietan, Euskal Autonomia Erkidegoko eragile sozial eta ekonomikoen arteko lankidetzaz eta topaketa sustatzea.

b) Tokian tokiko erakunde, enpresa eta entitateekiko harremanak ezartzeko organo gisa jardutea, bisitak, topaketak eta informazio-trukeak antolatzeko eta enpresa-, ekonomia- edo gizarte-arloko loturak ezartzeko.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko eragileen arteko topaketak antolatzeko azpiegitura eta laguntza-zentroa izatea.

d) Herrialde bakoitzean dauden araudi, politika eta aukerei buruzko aholkularitza, orientazioa eta informazioa ematea Jaurlaritzako sailei zein toki- eta foru-erakundeei, bai eta interesa duten enpresei, unibertsitatei, zentro teknologikoei eta bestelako eragile ekonomiko eta sozialei ere.

e) Herrialde horietan jarduten duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen beharrezan ebaluatzea, eta behar diren proposamenak bideratzea.

f) Euskadiko kultura-ekitaldi guztien zabalkundea egitea. Arreta berezia eskainiko zaio euskarari, kanpoan diren euskal gizataldeetako herritarrek edo gizatalde horietakoak izan ez arren interes berezia duten pertsona guztiek ikasteko aukera izan dezaten.

g) Lankidetzaz-harremanak ezartzea euskal kultura, tradizioak eta hizkuntza bultzatzeko erakunde, elkarte eta zentroekin, bai eta Euskadiri arreta berezia eskaintzen dioten tokian tokiko erakundeekin ere.

3.– Jaurlaritzaren Lehendakariak eta Ekonomia eta Ogasun Saileko organoen mende, Euskadiren kanpoko ordezkari bakoitzak bere esparruan egiteko hauek beteko ditu:

a) Ordezkaritza bakoitza dagoen herrialdean bizi diren lan-kontratuko langileak kontratatzea eta, langileei, langileen ordezkariari eta erakunde publiko eta pribatuei dagokienez, enpresariari dagozkion egitekoak betetzea.

b) Ordezkaritzako langileen lansarien balio-handitzeak ebatzea, Gobernu Kontseiluaren erabakietan jasotako baldintzetan.

c) Kontratazio-organo gisa jardutea dagokion lurralde-eremuan egiten diren kontratuetan, baldin eta sektore publikoko kontratuei buruzko legeetan araututako kontratu txikiak badira, eta higiezinak errentatzeko kontratuak badira, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 41. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letretan ezarritako eran. Gainera, ordezkariak baimendu beharko du kontratazio horiek eragindako gastua.

d) Administrazio publikoetan Eusko Jaurlaritza ordezkatzeko ordezkariaren ohiko funtzionamendurako behar diren izapide guztietan, eta, batez ere, tributuak kudeatu eta ordaintzeko eta lizentziak eta baimenak lortzeko.

## V. KAPITULUA

### TRANSIZIO SOZIALAREN ETA 2030 AGENDAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

#### 20. artikulua.– Egitekoak.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari dagozkio, zuzenean eta hierarkian lehendakariaren mende, 5. artikuluan esleitutako egiteko orokorrez gain, honako hauek:

a) Eusko Jaurlaritzak trantsizio sozialaren arloan duen estrategia definitu eta dinamizatzea, bereziki, erronka hauei heltzeko: Bizi Berri Plana, Migrazioarako Euskal Itun Soziala eta biztanleria-erronka.

b) 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa egitea, Euskadi Basque Country 2030 Agenda oinarri hartuta.

c) Sailen arteko, erakundeen arteko eta gizartearen arteko lankidetzak bultzatzea Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuetan, eta, horretarako gai horietan erakundearteko aliantzak eta gizarte zibilarekiko aliantzak dinamizatzea.

d) Eusko Jaurlaritzako sailei eta Euskadiko erakunde publikoei 2030 Agenda betetzen laguntzea, eta ezarpen horren ebaluazioa bultzatzea.

e) Zabalkunde, komunikazio eta sustapen soziala bultzatzea trantsizio sozialari eta 2030 Agendari buruzko gaietan.

f) Trantsizio soziosanitariorako Bizi Berri Plana eguneratzea, eta ezarpen horretan inplikaturako sail, erakunde eta entitate sozialekin koordinatzea.

g) Jarduera-proposamen berriak egitea Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren aurreikuspenen garapenera dagokionez, eta itun horren ezarpena dinamizatzea, itun hori sinatu duten erakundeekiko lankidetzan.

h) Arlo horietako egoerak eta aukerak diagnostikatzeko, aztertzeko eta aztertzeko azterlanak eta txostenak sustatzea.



i) Egoera bakoitzean trantsizio sozialak sortzen dituen erronka berriei erantzuteko behar diren jarduerak garatzea.

21. artikulua.– Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza.

Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzari, 6. artikuluan esleitutako egiteko orokorrean gain, honako hauek dagozkie:

a) Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko gizarte-berrikuntzako proposamenak egitea.

b) Sailen arteko koordinazio- eta jarraipen-estrategiak bultzatzea, trantsizio sozialaren eta 2030 Agendaren arloan Jaurkitzearen baterako ekintza lortze aldera.

c) Trantsizio soziosanitarioko Bizi Berri Planaren eguneratze bakoitzaren eduki eta xedapenen betetze-mailaren jarraipena sustatzea.

d) Erronka demografikoaren arloko strategiaren jarduera-ildoak eta ekintzak bultzatzea eta jarraipena egitea.

e) Migrazioarako Euskal Itun Soziala garatzeari dagokionez, jardun-proposamen berrien ezarpena sustatzea eta jarraipena egitea, itun hori sinatu duten erakundeekiko lankidetzan.

f) 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren sailen arteko, erakundeen arteko eta gizartearen arteko lankidetzaren dinamizatzea, eta horren jarraipena egitea.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskadiren kanpoko ordezkariak, zuzendaritza eta idazkaritza nagusien titularren lanpostuak hutsik badaude, edo titularra bera falta bada edo gaixorik badago, ordezkariak arau hauei jarraituz egingo dira:

a) Idazkari nagusiei esleitutako eskumenak eta egitekoak idazkari nagusi horien mendeko zuzendariak beteko dituzte, egiturako hurrenkeraren arabera.

b) Zuzendariak eta Euskadiren kanpoko ordezkariak esleitutako eskumenak eta egitekoak hierarkikoki gainetik dagoenak beteko ditu.

c) Aurreko arauak nahiko ez diren kasuetan, administrazio-organoren eskumenak gain-gainetik dagoen administrazio-organoren izendatzen duenak beteko ditu.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 11ko 70/2017 Dekretua eta dekretu honetan adierazitakoaren aurka egiten duen maila bereko edo beheagoko beste edozein xedapena.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 19an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.